


Astekaria



elgoi



Betirako

San Bartolome 26 Tel: 74 08 48 •ELGOIBAR•

# OLAIZAGA KIROLDEGIA

*Giro aproposa eta profesionala*

GARBITASUNA  $\neq$  KALITATEA

SAUNA

MASAIA

SQUASH

IGERILEKUA

AEROBIC

KARATEA

FRONTOIA

MUSKULAZIOA

**MATRIKULA ZABALIK**

San Roke, 1 Tel: 74 13 61

Orain matrikulatuz gero  
%20ko deskontua

*Iritsi da udaberria  
Kiroldegira!*



elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**

Anjel Ugarteburu.

**KAZETARIAK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**

Maite Rementeria,

Edu Sanz.

**PUBLIZITATEA:**

Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oriati)

**TIRADA:** 3.500 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Komunikabideak berriz ere

**B**ARRENen 100. zenbakia kaleratu zela eta, Elgoibarko Izarrak antolatutako mahaingurua hartu nahi nuke abiapuntu. Bertan, Hasier Etxeberria moderatzaile zutela, hiru kazetari elkartu ziren: EGINEKO Martin Garitano, Amatiño eta Pello Zubiria, Argiako Zuzendaria. Mahainguru horretan Amatiñoek protagonismo berezia izan zuela esan daiteke; agian, bere medioa, telebista, hiruetatik boteretsuena eta eraginkorrena delako eta Amatiño ezagunago zaigulako.

Zuzen zegoen Amatiño aktualitatearen tratamenduan telebistak dituen murriztapenak azaldu zituenean: egunkari batean albiste ugari sar daitezke, baina telebistako albistegietan hamar bat baino ezin dira aipatu, eta aukeratu behar horrek lehenetsun batzuk zehaztea eskatzen dio medioari. Beraz, lehenetsunak ezartzean datza arazoa, bai eta albisteak aukeratu ondoren berriei ematen zaaien tratamenduan ere.

Argi dago albisteak irizpide batzuen arabera aukeratu eta tratatzen direla eta irizpide horiek politikoak izan ohi direla. Esandakoa ilustratzeko adibidexko bat baino ez nuke aipatu nahi. Lasa eta Zabalaren gorpuak (hezurrak) agertu ondoren Tolosaldean deituriko greba orokorraren berri ematerakoan, ETBk argi utzi zuen zein irizpidek agintzen


duen. Albisteak Tolosa erdialdeko irudi batzuekin hasi zen eta lehenengo hitzek Tolosako kaleetan lasaitasuna nagusi zela zioten. Bost edo seigarren esaldira itxaron behar izan genuen greba bati buruzko informazioa ematean lehenbizi jakin behar dena jakiteko: grebak erantzun zabalak izan zuela, alegia.

EGIATASUNAK egiten al du on albisteak? Horixe galdetu zien H. Etxeberriari. Ezetz erantzun beharko genuke. Egia da Tolosa lasai zegoela, grebak erantzun zabalak izan zuela, baita eguraldi ona egiten zuela ere, baina azken hau ez zen aipatu. Dударik gabe, egitasuna albistearen oinarria litzateke. Hala ere, badirudi ez dela nahikoa. Garitanoren hitzetan, egunkarietan egitasunak bat egiten du (eta egin behar du) iritziarekin; Euskal Herriko egunkari bakoitzak bere lerro editoriala duela adierazi zuen P. Zubiriak. Eta hori zilegi da egunkaria medio pribatua den heinean. Carrascalek ere iritzia agertzen ditu gaueko albistegian, baina A3 medio pribatua da eta bere diruaz nahi duena egin dezake.

ETB, aldiz, medio publikoa da, denok ordaintzen duguna. Zilegi al da, beraz, KONTAKATILUaren bidez lerro editorial bat azaltzea edota albiste aukeraketa eta tratamenduan irizpideak hain markatuak izatea?

**Lorea Gorostiaga**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## KEXAK

Aste honetako kexa BARREneko langileona da. Martxoaren 24ean lapurren bisita izan genuen BARREn eta besteak beste argazki kamarak, grabagailuak eta musika tresnak eraman zituzten. Hala ere, honek ez digu min gehien eman. Zuok irakurleok lagatako BI ERRETRATU ZAHAR ere lapurtu dituzte eta hau benetan larria dela iruditzen zaigu. Hauek jabeentzat duten balio sentimentala kontuan izanda, erretratuak bueltatzea exijitzen diogu lapurrari.



## TXALOAK

Pilar ikastetxeko zuzendaritzak eta guraso talde batek Udala txalotu nahi dute errepede azpitik dagoen pasua eta zubi ingurua margotu dutelako. Zuri-zuri laga dute eta lehengoarekin alde ederra omen du.

# ESKUTITZAK

## Jorge Hernandori erantzuna

**H**ernando jauna, zure eskutitzean zenion bezala, guk ere, ezberdintasun politikoak bazterturik, pertsonenganako errespetua beharrezkoa dela uste dugu bakean eta adiskidetasunean bizi ahal izateko.

Gertatzen dena zera da: demokratik, herri honetan gehiengo garelarik, esandakoarekin bat gatozen heinean, zuek "PERTSONAK ERRESPETATZEARI" ekiten diozue (beti ere diferentzia politikoak aldenturik, jakina), haien kotxeak erreaz, koktel molotovak jaurtikiz, herriko tresneria txikituz e.a., guzti hau adiskidetasun eta tolerantziaren alde eta euskal langileriaren babesgarri delarik.

Ulergarria da zure mentalitate faszista horren arabera, betidanik EAJ/PNVren ideia, asmo eta pertsonengan beren botuetaz konfidantza osoa ezarri duten herri honetako gehiengoaren borondatea errespetatuz, hauteskunde demokratiko baten emaitzak onartu ahal ez izatea.

Jakin ere badakigu zu eta zu bezalako zenbait alderdikidek arau demokratiakoak onartzen ez dituzuen momentutik eta duela bi larunbat Elgoibarren jandako gertakariak bezalako ekintza bantaldikoak bultzatzen dituzuen unetik, lau urte gogor datozkigula.

Pertsonalizatu nahi izanez gero, baliteke bere garaian, guk ere zuri eta zure gaurengungo eta iraganean izandako jokaerei buruzko zenbait xehetasun ematea.

Mesedez, Hernando jauna, izan gaitzen zentzundun, utz iezaizozu adarra

jotzen ibiltzeari. Gainera, eztabaidak alde batera utzi nahian, iragan hauteskundetan batak zein besteak lortutako emaitzei begirada bat luzatzea besterik ez dago bakoitzaren kandidaturak jasotako erantzunari bagagozkio. Hala nahikoa ez baduzu, gauden maiatzaren 29ra arte zain, balorapen zehatz bat egin ahal izateko.

**Elgoibarko EAJ/PNVko Uri Buru Batzarra**

## Udaltzaingoaren erantzuna

**A**stean zehar prentsak argitaratu dituen zenbait azalpen direla eta, hots, Amnistaren Aldeko Gestorek (apirilaren 1ean eta 2an), Elgoibarko JARRAIK (martxoaren 28an), kalean banaturiko panfletoetan, eta Herri Batasunak (apirilaren 3an) kaleko hormetan jarritako paperei buruz, zera adierazi nahi dugu:

1- Udaltzaingoaren aurkako akusazio guztiak, eta bereziki udaltzain baten aurkakoak, ez bakarrik faltsuak, partidistak eta mehatxu izkutuak besterik ez direla.

2- Aipaturiko udaltzainak, joan zen martxoaren 28an, bere lana bete besterik ez zuen egin, aurpegia estaliz kuadrila batek zenbait banketxeren aurkako erasoen berri irratiz ematera joan zenean. Maskaratuetako batek orduan, mailu handi bat burura altxatu zion eta ez deitzeko, bestela hilko zuela mehatxatu zuelarik.

3- Interes izkutuaren alde bultzaturiko manipulazio guztiak gogor salatu nahi ditugu, eta berehala udaltzain guztien asmo serioa argitaratu, herritar guztien alde, inongo diskriminaziorik gabe, lanean jarraituko dutelako.

**Udaletxeko Enpresa Komitea (CCOO eta ELA) eta Udaltzaingoa**

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





**A**ste honetako erretratua M.A. Zabalak lagatakoa da. 1963ko Gabonetan ateratakoa da goian dakaguna, Altzolako eskolan hain zuzen ere. Altzolako eskolan bi gela omen zeuden: bata mutilentzat eta bestea nesKentzat. Sei urtekoetatik hasi eta 14 urtera bitartekoak nahastuta egoten ziren gela berean.

Adin nahaste horretan klaseak ematen zituzten maisu-maistrak ez ziren makalak izango!

Zeintzuk diren erretratuko morroskoak? Beheko ilaratik hasita, ezkerretik eskumara: Sindo, Emiliano Perez, Jose Miguel Gorriti, Jesus M. Plazaola, Luis M. Urbietta, ezezaguna, Guillermo Garcia, Jesus Mari

Diez, Florencio Garcia eta Angel Santarem.

Bigarren ilaran: Fernando Diez, Arturo Rivas, ezezaguna, Fernando, ezezaguna, Alberto, Eusebio Morales, Anton M. Etxeberria, Jose Antonio Ostolaza, Angel M. Iriondo eta Victor Usatorre.

Hirugarren ilaran: Jose Ramon Esnaola, Jose Perez, Vicente Etxeberria, Juan Cruz Oteiza, Laurindo irakaslea, Venancio Lariz, Leiaristi eta Jesus M. Zabala.

Laugarren ilaran: Ramon Zafra, Miguel Angel Lariz, Fernando Gonzalez, Jesus M. Landa, Jose Perez, Juan Zafra, Jose Luis Huidobro, Juan Bautista Lariz, Jose Antonio Oteiza, Jesus M. Gonzalez eta Eduardo Garcia.

ASESORIA  
GOZAR

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAk
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAk

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

**ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?**

*Hitzegiteko: landu zure ahotsa!*

Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...

ERAGINDAKO RONKERAK

**ANGELA ZABALETA AIZPITARTE**

DEITU ☎ 74 15 56



*Kafetegia*



*Estarta y Ecenarro enpresaren aurreko aldearen ikuspegia beranduago egin ziren aldaketak baino lehen.*

# Elgoibarko industria umezurtz

Aspalditik iragarrita zegoen SIGMAren itxiera gauzatu zen joan den astean. Elgoibarko industriaren bultzatzaile izan zen enpresaren itxieraren arrazoiak urrunetik zetorren krisian topatu behar dira. Batzuen ustez, Aingeru hil zuten urtean dago gakoa, beste batzuen ustez Eulogio Estarta, Sigmaren buru eta ardatz zena hil zenean hil zen Sigma bera ere. Beste batzuen iritziz, 70. hamarkadarako egitura izugarri haundia bihurtu zen eta haren gestioaren arduradunek ez zuten enpresa merkatu berri baterantz bideratzen jakin izan. Horra hor mila uste eta mila arrazoi ezberdin, bueltarik ez duen errealitate baterako.

**S**igmaren itxierarekin Elgoibarrak gal zezakeen al-txorrik preziatuena galdu du. Dagoeneko altxorra baino sagar ustela zen enpresa erraldoi haren hondakinak baino ez dira geratzen. Baina hondakin bihurtu aurretik ia mende beteko historia izan duen enpresa honek Eulogio Estartaren eskutik eman zituen lehen urratsak. Maala inguruan, gaurregungo Tiroriro taberna dagoen tokian, Leon Ziaranak eta Eulogio Estartak lantegitxo bat jarri zuten, 1913an. Beranduago Eulogio Estartak bere kontu Santa Ana kalean beste lantegi bat jarri zuen eta 1915. urte ingururako Estarta y Ecenarro S.C. eratu zen. Elkarte komanditario sinplea sortu zuten Eulogio Estartak, honen koinatuak Daniel Ansolak sozio kapitalista modura, mekanikoa zen Alberto Ezenarrok eta kontable lanetan jardungo zuten Teodoro Ezenarrok. Zutabe-taladroak, zepiladoreak, Gasteizko Agustin Arizarentzako oinetakoak josteko makinak eta beranduago, prentsak egiten hasi ziren. 1935-36 urte bitartean 60 langile zituen Estarta y Ecenarrok.

#### **Elkarte anonimoa**

1941ean elkarte anonimo bihurtu zuten, Teodoro Ezenarrok enpresa laga egin zuen eta akzionista berriak sartu ziren: aurreko sozioez gain, Guipuzcoano banketxea, Agustin Ariza, Luzuriaga sendia, Patricio Etxeberria, Jaime Zarauz, Pedro Otazua Artaraza, Eibarko

Aurrera, eta urte batzuk beranduago, Jose Maria Agirre Gonzalo.

#### **Gerra garaia**

1936 eta 1939 urteen bitartean militarizatu egin zen, gainontzeko enpresa guztiak bezala. Mortero-granadentzako estabilizadoreak egiten jardun zuten urte hauetan. Eulogio Estartak Eibarko Alfa enpresaren gorabeheren berri zeukan orduko, izan ere, gerra zela eta erabat desmantelatu omen zuten. Alfak bururik altxako ez zuten ustearekin, milatik gora langile izango zituen SIGMA josteko makinak egiteari ekin zion. Erraminta makinaren dibisioaren barnetik, hari esker sortu zen josteko makinaren atala. Hauen diseinua alemaniar batena zen, Carlos Ruben Wright-ena.

#### **Haseran CIMA, gero SIGMA**

SIGMA izenaz bataiatu aurretik, CIMA izena jarri nahi izan zi-tzaion josteko makinari. Izen honekin egindako makinak Gumersindo Garcia izeneko enpresa gizonarentzat egiten ziren eskusiban. Baina laster izen horrekin merkaturatzeari utzi beharra izan zioten Suizako erloju fabrika batek izen bera erabiltzen baitzuten bere erlojuetan. Ordutik aurrera SIGMA izenaz ezagutzera eman zuten josteko makina, eta Estatu osora ere hedatu zen haren oihartzuna.

#### **Ekonomatoa eta Sigmako etxeak**

Enpresa erraldoi bihurtzen ari zen. Gobernuaren aginduz, langile kopuru batetik gora zenbait zerbitzu eskaintzeko

obligazioa izaten zen, ekonomato bat eta langileentzako etxebizitzak esaterako. 50 bat etxebizitza eraiki ziren lantegitiki gertu; Sigma izena hartu zuen auzoak. Ekonomatoa ere Ford kamioia bezain ezaguna izan zen. Ekonomatoa San Bartolome kaleko lokal batean ireki zen. Asmoa Sigmako langileentzat saltoki bat izatea zen. Haseran jatekoa soilik, gero arropak ere eros zitezkeen bertan. Langileentzat bakarrik izan arren, gainontzeko herritarrek ere izaten zuten hango produktuak lortzerik ezagunen bidez eta horrelako harremanei esker. Arrilaga kalean kokatu zuten gero eta duela hamar bat urte itxi zen.

#### Gehiegizko produktzioa

Urterik urte, hazten zihoin Sigma. Barruko merkatu osoa hornitzeko baino josteko makina gehiago produzitzen zirenez, soberako produktzioa esportatu egiten zuten Frantziara eta Hego Ameriketara. Materialaren pisuaren kostuaren prezioan sal-tzen ziren, oso merke.

Probintzia bakoitzean banatzaile eskusiboak zeuden, eta salmenta kupo bat izaten zuten. Beranduago, banatzaileak kendu eta Estatu osoko sare komertziala sortu zuten. 1977an 33 sukurtsal zituen Estatuan banatuta.

#### Gainbehera eta betirako itxiera

1970. urterako merkatua agortzen hasia zegoen. Josteko makina ez zen lehen bezain erraz saltzen. Behin etxe batean makina bat erositakoan bigarrena nekez sar-tzen zen. Sare komertzialaren kontrola izatea ere gero eta zailago bihurtzen ari zen eta guzti hori igartzen hasi zen Sigmaren finantzetan. Ordura arte autofinantziarioari esker funtzionatu zuen enpresak 400 milioiko kreditua

eskatu behar izan zion Banesto banketxeari. 1974. urtea zen. Salmentak eta irabaziak urritzen hasi ziren eta galerak hazten. Hurrengo urteetan, 80ko hamarkadan hain zuzen, petroleoaren krisiaren eraginez merkatuak atzerakada izugarria jasan zuen. Josteko makinariak apenas saltzen zen; langile mordoak galdu ziren 1979tik aurrera eta sukurtsalak isten hasi. 1992ko abenduan UCEM korporazioak hartu zuen Sigmaren zuzendaritza. Josteko Sigma makinaren atalak, EYEDIS komertzialak eta Estarta y Ecenarro erremita makinaren atalak EYE, S.A. korporazioa osatu zuten. Korporazio honen gestioaren emaitza Sigma Book josteko makina txiki eta iraultzailearen merkatutzea izango da Eusko Jaurlaritzaren 3R planari esker. Emaitzak jakinak dira guztiontzat. Azkenean, Elgoibarko enpresa gizonen sorleku eta industria guztiaren gune izan zen etxe erraldoi hark ateak itxi behar izan ditu. Betirako agur esan du Sigmak.



■ ■ Goian sortzaileak, T. Ezenarro eta alboan, E. Estarta. Behean, Sigma markako josteko makinan bordatzen.

## Kronologia labur bat

**1913.** Eulogio Estarta eta Leon Ziaran batu egin ziren lantegi bat sortzeko Maalan. Ondoren banatu egin ziren eta Estartak bere kontura jarri zuen tailerra Santa Ana kalean.

**1915.** Eulogio Estartak eta Teodoro Ezenarrok elkarte komanditario sinplea sortu zuten. Hauek gain, Teodororen anaia Alberto Ezenarro eta Estartaren koinatua, Daniel Ansola, azken hau sozio kapitalista modura, batu ziren.

**1936.** Gerrate Zibilak iraun zituen urteetan mortero-granadentzako estabilizadoreak fabrikatu zituzten.

**1941.** Elkarte anonimo bihurtu zen. Akzionista gehiago sartu ziren, tartean Banco Guipuzcoano eta josteko makinak fabrikatzeari ekion zioten, eguneko 10 makina eginez.

**1943.** Josteko makinak seriean produzitzen hasi ziren.

**1956.** Sigmako etxeak eraiki ziren.

**1955.** Eulogio Estarta SIGMAren “zerebro” eta fundatzailearen heriotza. Ordurako 450 langile zituen enpresak.

**1959.** Urte honetan 153 milioiko kapitala zeukan Sigmak eta 178 milioitiki gora fakturatzen zuten.

**1970.** Dagoeneko 675 langile eta 26 sukurtsal zituen.

**1974.** Lehen aldiz kreditua eskatu behar izan zuten. Banesto bankuari 400 milioiko kreditua eskatu zioten. Sigmaren gainbehera hasia zegoen dagoeneko.

**1976.** Aingeru Berazadi, SIGMAko gerentea, hil zuen ETAK. Pedro Atristain izendatu zuten zuzendari nagusi.

**1977.** Sigmak 2.295 milioi fakturatu zituen. 540 milioiko kapitala zeukan, 1657 langile, hauetatik 924 Elgoibarko fabrian eta 800 Estatu osoan banatutako 33 zentruetan.

**1979.** Sigmako 51 langile aurrejubilatuta ziren eta 1982an beste 48 pertsona.

**1992.** Azken 10 urteetan 296 langile aurrejubilatuta ziren.

**1992.** Abenduaren 18an EYE Korporazioa sortu zen. Eusko Jaurlaritzaren 3R plana martxan jartzen da baina Sigmak ez ditu jarritako baldintzak (kapital gehiketa) betetzen. Sigma Book-aren merkaturatzea eta ondorengo porrota.

**1995.** Azken 214 langileak kaleratzen dira eta betirako itxiera gauzatzen da.



■ ■ Urteen poderioz, enpresa erraldoia bihurtu zen SIGMA. Batzuen ustez, erraldoiegia.

## GAUR egun

### Zein egoeran geratu da SIGMA?

- Duela bi hilabete Sigmako langileek enpresa hartu zuten, hiru urte-tan zehar Irureren taldearen gestio txarraren ondorioz, Sigma Book-ak porrot egin eta gero. Aurrez uste zuten 200.000 josteko makina saldu beharrean 2.000 edo 3.000 baino ez dira saldu eta haueetatik asko eta asko itzuli egin dira akatsak zituzte-lako.

- Abenduan enpresak 120 langile kaleratzea proposatu zuen eta ordainketak eten egin ziren.

### Zein egoeran dau

- EYE Korporazioan (Sigma, Eyedis eta Estarta Injeniaritza eta Makinaria) lan egiten zuen 214 langileak kalean daude. Batzuek 6 hilabete langabezia baino ez dute eta indemnizazioak eta atzeratutakoa kobratzeko zain daude.

- Horietatik 143 Elgoibarren bizi dira.

- Kaleratutakoetatik 140 inguru 41 eta 50 urte bitarteko pertsonak dira. Beste 53 langi-





■ ■ SIGMAko langileak kale gorrian geratu dira. Banco Guipuzcoano-ri, akziodun bezala, diru arazoak konpontzea eskatzen diote.

## de langileak?

le 51 eta 60 urte bitartekoak dira.

● Bi urte eta gero 80 langilek ez dute indemnizaziorik jaso oraindik. Hori dela eta, 22 magistratura ezberdinetan prozesuak irekita daude enpresaren aurka.

● Aurrejubilazio planen bidez enpresa utzi zuten 130 langile, tokatzen zaien dirua jasotzeko zain daude.

## Aurrera begira zer?

● Hiru proiektu planteatu ziren. Hauetatik batek bakarrik egin dezake aurrera, baldin eta diru aldetik konpontzeke dauden hainbat aspektu argitzen badira.

● Proiektua zera litzateke: kaleratutako 214 horietatik, 36 langilek errekifikatzaileak egiteko enpresa sortuko lukete.

● Proiektua bideratzeko zera eskatzen dute:

1) Banco Gipuzcoano-ri, akziodun nagusia izanik, 3R planak zioen 250 milioiko kapital anpliazioa egitea eta enpresaren patrimonioan sal-

mentatik eskuratu duen dirua itzultzea.

2) Eusko Jaurlaritzari, langileen egoera arintzeko aparteko neurriak hartzea.

3) Eta instituzioei, Haziendari eta Seguritate Sozialari, neurri konkretuak har ditzatela.

4) Era berean, 7.000 milioiko pasiboa eta Eusko Jaurlaritzak emandako 900 milioiko kreditua negoziatzea eskatzen dute.

5) Azkenik, Gerolan-en birkolokazio teknikak erabiltzeko aukerazitea eskatzen dute.

## ■ HBk eta Gestorek Zelaiaren atxiloketa salatu dute

Elgoibarko Gestoretako kideek eta HBko kideek ere, PNVri leporatu zioten joan den hilaren 25eko istiluen ardura “herriak jasaten duen errepresioari eta azken hilabeteotako notiziei erantzuna izan baitzen”. Ertzantzak “herria hartu” zuela eta Xabier Zelaiaren atxiloketa “bahiketa” izan zela salatu zuten. “Xabier kargurik gabe aske utzi dute, gainera, istiluak gertatu ziren egunean etxean egon zen senideekin eta gauean, berriz, Zarautzen”. Era berean zenbait udaltzainen jarrera salatu zuten, “Ertzainei herritarren izenak emateagatik”. Honez gain, HBko kideen esanetan “PNVko zenbait kidek JARRAIko gazteen gurasoengana jo dutela dakigu, hauek istiluetan parte hartu zutela esanez”. Bestetik, Justo Arriolak eta Rafa Fejook hiru Ertzainen aurka jarritako salaketaren sententziaren arabera, bi ertzaini 25.000 ptako isunak jarri dizkiete eta hirugarrenari bi hilabeteko gartzela zigorra. Halaber, Arriolari 140.000 ptako indemnizazioa eta Fejoori 35.000 ptakoa eman beharko die. Sententzia “motz geratu da” bi elgoibartar hauen ustez, “delittoa zena falta bezala epaitu dute eta epaiketan Ertzainen aldeko jarrera izan zuen epaileak”.

## ■ Erabilitako radiografiak biltzeko kanpaina

*Sanofi* eta Espainiako *Farmaceuticos Sin Fronteras* elkarrekin elkarlanean, erabilitako radiografiak jasotzeko lehen kanpaina martxan jarri dute. Radiografiak duten zilar gatzak bildu eta prozesu ez kutsakor baten bidez lingoteetan urtzea da kanpainaren asmoa. Bertatik lortutako dirua *Farmaceuticos Sin Fronteras* elkarrekin erabiliko luke hirugarren munduko herrialdeetako haurren gaisotasunak sendatzeko kanpainarako. Radiografia zaharrak farmazietan jarritako kaxetan jasoko dira, hilaren 30era arte.

## Makinen prestakuntzarako “Sintoma”



**E**SPRIT programaren barruan, Ideko Teknologik Zentrua erraminta makinen prestakuntzarako prozedurak hobetzeko proiektu europar bat garatzen ari da Danobat, Alemaniako INA eta Dublineko University College-arekin elkarlanean. Horrez gain, makinen ezauzgarrien azterketaren bidez diseinua hobetzea, eta salmenta osteko mantenu eta zerbitzurako sistema portatib bat garatzea litzateke Idekoren

asmoa. Fabrikatzaile askoren ustez makinen prestakuntza hobetuz akats ugari ebaitzeko daitezke. Makinen konportamendua aztertzeko inteligentzia artifizialaren bidez lortutako datuen azterketaren bidez eta sensoreen bidez lortuko lirateke aipatu asmoak. *Sintoma* proiektuari esker, makina berri bat egiteko behar den denbora eta kostua gutxitzea lortuko luke fabrikatzaileak.



**Friedrich Lips** soinu-jole errusiarrak emandako kontzertuko argazkia da honako hau. Musikari ezagun honek aparteko saioa eskaini zuen joan den ostegunean Herriko Antzokian. Publiko aldetik inoiz baino jende gehiago urreratu zen errusiar maisuaren bertuosismoarekin gozatzerako. Ekitaldi hau Inazio Bereziartua Musikeskolaren X. urteurreneko ospakizunen barruan antolatu zuen Musika eta Dantza Fundazioak.



**Senideak elkarrean** bultzatuta, Euskal Herriko sei taldek, Oretako Bake Taldeak, Herria 2.000 Elizak, Gernika Batzordeak, Gestorak, Elkarrik eta Senideak hain zuzen, preso en egoeraren inguruan eztabaidatzeko bilerak egiten dihardute joan den irailetik. Hilean behin biltzen dira Elgoibarren, presoek bizi duten egorari buruz talde bakoitzak proposatzen dituen ekimenak eztabaidatu eta bukaeran, sei taldeen onespenerekin lanerako irizpideak finkatzen dituztelarik. Azken bilera, asteartean izan zuten Mekanikako lokaletan. Beste gai batzuen artean, Jose Antonio Ardanza lehendakariarekin eta Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuaren presidentearekin elkarriketatzeko eskakizunari buruz hitz egin zuten.



**Bilboko "Bilbo-Zaharra"** euskaltegiko ikasle talde hau izan genuen bisita egiten joan den ostegunean. Goiza euskal giroan igarotzeko asmoz etorri zen bilbotar talde hau Aitor Argarate irakasle elgoibartarrarekin. Ostegunetako azokan atzera eta aurrera ibili ondoren BARRENera etorri ziren aldizkaria nola egiten dugun lekuan bertan ikusteko. Elgoibartarron esperientzia aberasgarria ikusi ondoren, Bilbon bertan aldizkari propioa sortzeko gogoia ere piztu omen zitzaion.

## ■ IUK Udaletxerako hautagaia aurkeztuko du

Izquierda Unida-Ezker Batua alderdiak maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako hautagaia aurkeztuko du azken hauteskundeetan izandako emaitzen arabera. Hautagaia Sigmako CCOO sindikatuko ordezkaria den 39 urteko Juan Ausin Santamaria da, IUK Elgoibarren ordezkari gisa aurkeztu duen lehen aldia izanik.

## ■ Udalekuearako izena emateko epea zabalik

Aldundiak urtero antolatzen dituen udalekueara joateko izena ematea irekita dago Kultur Zerbitzuan. 20 leku ezberdinetan egonaldiak igarotzeko aukera eskaintzen dute 7 eta 13 urte bitarteko haurrek, euskara hutsezko txandetan edo txanda elebidunetan. Izena emateko goizeko 11etatik 1etara bitartean Kultur Etxetik pasatu edota 74 21 58ra deitu hil honen 28a baino lehen.

## ■ Ordutegi aldaketa Kiroldegian

Aste Santuko oporrak direla eta Olaizaga Kiroldegiak ordutegi aldaketa izango du. Ostegunean, hilak 13, jaiegunetan bezala goizez bakarrik egongo da irekita, 10etatik 2ak arte hain zuzen. Ostiralean, hilak 14, itxita egongo da, larunbatean eta igandean ordutegia ohizkoa izango da eta astelehenean goizeko 10etatik 2etara bitartean egongo da irekita.

## ■ Castrora ibilaldia

Zaharren Biltokiak Castro Urdiales-era txangoa antolatu du hil honen 28rako. Goizeko 8,30etan aterako dira Plaza Handitik egunean bertan itzultzeko asmoz. Gosaria eta bazkaria Castroko jatetxe batean egingo dute eta ondoren dantzaldia, karaokea eta dohainiko kontsumizioa *Sinatra* dantzalekuan, irteera eta den-dena 1.500 ptaren truke. Joan nahi duena, 10etatik 12etara bitartean Zaharren Biltokitik izena ematera pasa daiteke.

Alberto Iriondo:

## “Bakalao musikaren armonia ume batek egin dezake”

29 urte dituen gazte elgoibartar honek oso txikitatik du musikarekiko lotura. 10 urte inguru zituela Elgoibarren garai hartan zegoen akademia batean, Jose Antonio Osororekin eta Jose Angel Zubiaurrerekin hasi zen musika ikasten, solfeoa eta klarinetea. Ordutik hona denbora gehiegi pasa ez den arren, makina bat gauza egin ditu bidean:

Filosofia ikasi, Donostiako kontserbatorioan musika ikasketak, Mauxitxako kide izan da, TOL taldea sortu eta diska bat argitaratu, Julio Kagetaren diska batean parte hartu izan du... Albertorekin izan ginenean, berak sortutako musika pianoan jo zigun. Indarra zuen, barruraino sartzen den musika da.

### - Nolatan filosofia?

- Eibarko Unibertsitate Laboralean izan nuen filosofia irakaslea oso ona zen, hark filosofia erakar-garria egin zuen nire begietara eta bizitza ulertzeko filosofia ikastea interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen.

### - Zein da musikaren tokia zure bizitzan?

- Alde batetik nire bizimodua da, Elgoibarko eta Arrasateko musikeskoletan klarinetea irakasten baitut. Beste alde batetik, errealitatetik kanporatzeko, ametsen munduan barneratzeke instrumentua da, batez ere musika sortzen nagoenean.

### - Noiz hasi zinen musika sortzen?

- Musikan faseak daude. Lehenik musika jotzen duzu, bigarrenik musika zure erara interpretatzen hasten zara eta hirugarren fasea litzateke bakoitzak bere musika sortzea. Jesus Mari Sarasua ezagutu eta biok hasi ginen musikari buruz hitzegiten eta sintetizadore baten bidez musika sortzen.

### - Horren ondorioa izan al zen Tol?

- Bai, entsaioak egin genituen ondo pasatzen genuelako, inolako pretensorik gabe. 1983.



“Burua da nire lehen iturria bai eta beste zerbait ere, ezezaguna dena, gorputz osoan dagoena, bai eta gorputzetik kanpo ere”

urte aldera, Julen Agirre-ren kolaborazioarekin eta Jabi Ezenarrokekin *Tol* sortu eta Diputazioaren dirulaguntza bati esker, diska bat atera genuen, *Oasis*.

### - Zeintzuk dira zure iturriak?

- Bat burua eta bestea ez dakit oso ziur zein den, non dagoen, baliteke gorputz osoan egotea, edota kanpoan, ez dakit, toki ezezagun bat da.

### - Zein musika gustatzen zaizu?

- Ona den edozein. Gaur egungo musikarien

artean bat aukeratzekotan, Peter Gabriel.

### - Txarra ezin al da gustukoa izan?

- Niretzat ez baina argi dago jendearentzat baietz. Hor dago bakaila-  
oa, musika txarra da baina jendeari gustatzen zaio. Bakailaoaren armonia ume batek egin dezake. Kalitatezko musikak arrakasta izaten du baina gerta daiteke kalitaterik ez izatea baina arrakasta izatea, modan dagoelako, marketing ona egin delako... Beste batzutan, kalitatea izan arren ez dute arrakas-

tarik izaten.

### - Idatzi ere egiten duzu. Lotzen al dituzu letra eta musika?

- Ez dut ohiturarik. Hitzak badu ahalmen bat berez gauza asko esateko, bai eta musikak ere. Biak lotzen badituzu batak bestearen ahalmena zapaldu edo ahuldu dezake, nahiz eta beste batzuetan handiagotu, aberastu.

### - Instrumenturik onena?

- Giza ahotsa.

### - Soinu bat?

- Itsasoarena.

### - Orain gutxi Bertso Jarrien Kantaldian parte hartu zenuen.

- Bai, esperientzia berri bat izan zen. Euzkitze eta Mendizabal bertso-lariekin batera jaialdi bat antolatu zuen Elgoibarko Izarrak. Haritzek dantzariak jarri zituen eta nik pianoan musika jarri nuen eta musika aldetik arregloak egin nituen, beste pieza batzuk sortzeaz gain. Esperientzia berria izan zen, esperientzia ona, aberasgarria.

### - Eta orain, zein asmo?

- Anaiarekin batera, haurrentzako diska bat kaleratzeko proiektua daukat, kanta herrikoiez osatua. Eta Ekekeik, antezlan batean egin behar duten dantza baterako musika egitea eskatu dit.

# *Triste* BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 12. GEHIGARRIA



ne, two, three... Zenbakiak ikasten dira lehenbizi ingelesez, edota yes, hello, I am... Gaur egun gero eta gazteago hasten da jendea hizkuntzak ikasten, ingelesa, batez ere. Bada 3 urterekin hasten denik, adin horretan haurrak askoz rezeptigoagoak direla eta. BARREN Herri Eskolan izan zen. Bertan, hirugarren mailan hasita audiobisualak lantzen dituzte ingelesa ikasteko; entzumena, ikusmena eta mintzemenena. Jokuekin batera, askoz dinamikoagoa eta arinagoa egiten da klasea, ikasgaia baino denbora ondo pasatzeko modua bihurtzen baita, gainera ikasiz.

## *Triste*

Ikerrek bere aitari esaten dio:

- Aitatxo, bizikleta bat erregalatu didazula egin dut amets bart gauean. Zer esan nahi ote du horrek?
- Ba horixe, ametsetan egin duzula.



## Heziketa berdindu baterantz

**G**aur egungo hezkuntza sistemaren oinarriak Europan sortu ziren XVIII. mendearen erdi alde-  
ra. Eredu honen arabera, gizonezkoak eta emakumezkoak gizartearen baitan paper ezberdinak betetzeko sortuak izan ziren. Horregatik, hezkuntza ezberdina jaso behar zuten. XVIII. mendearen amaieran eta XIX. aren hasieran, gizartearen eragina zuten hainbat emakume, emakumezkoek ikastearen beharra defendatzen hasi ziren, seme-alabengandin eragin onuragarria izango zuelakoan haien heziketak. Baina, ideia honek ez zuen ohiartzunik izan.

Garai hartan, baita ere, Espainian mutikoak eta neskatxak eskola diferentietan ikasten zuten eta hezkuntza ezberdina jasotzen zuten. 1970. urtean eman zen hezkuntza erreformarekin jarri ziren baldintza legalek, hezkuntza mota homogeenagoa eta berdinduagoa sortzea erraztu zuten.

Esan bezala, ezberdintasun biologikoek eragin zuten hasera batean hezkuntza sexista. Egia da biologikoki gizonezkoak eta emakumezkoak ezberdinak garela (sexua) baina sexu bakoitzari ezartzen zaizkion gaitasunak, trebetasunak eta jarrerak gizarte batetik bestera, bai eta garai batetik bestera ere aldatu egiten dira. Honek, gaitasun

horiek gizarteak determinatuak daudela esan nahi du eta ez biologiak. Izan ere, antropologiak, psikologiak eta soziologiak egin izan dituzten azterketek hala baieztatzen dute.

Gaur egun hezkuntzan berdintasun formalak lortu da, hau da, ez da ezberdintasunik egiten neskek eta mutilek jasotzen duten heziketan, ez eta talde bakoitzak egiten dituen ekintzetan ere.

Halere, berdintasuna praktikan ez da benetakoa. Oraindik orain diskriminazioak ematen dira, gizarteak normalizatzen onartuak eta barneratuak baititu: sozialki onartua dago mutiko bat desordenatua izatea, neskek txukunak izan behar diren bitartean, edota neskek negar egitea mutikoen kasuan ahultasuna adierazten duen bitartean, "mutilek ez baitute negarrik egiten".

Guzti honek ondorio ezkorrek dakartza bai emakumezkoentzat, bai eta gizonezkoentzat ere, bakoitzaren garapen pertsonalean mugak jartzen dituelako eta zenbait jarrerara eta jokatzeko era kentzen zaizkielako.

Horregatik, benetako berdintasuna lortu nahi badugu, poliki poliki topikoak hautsi behar ditugu, horrela lortuko baitugu pertsonen osaturiko gizarte eta ez sexuek osaturikoa.



**MONTSE RUBIO**  
"AHOTS-LAN" LOGOPEDIA  
PSIKOLOGIA GABINETEKOA

## Ze iritzi daukazu *baraua egitea* ri buruz?



*Nere uteser ongi dago. Medikuek eraten dituztenean tripa bejiratu behar dugula, baraua egiten dugun.*

MAITE MADARIAGA. 8 urte



*Ongi iruditzen zait. Jainkoak hil baino lehen sufritu baldin bazuen, guk sakrifizio bat egin behar dugu kristauak garelako.*

ANABEL RODRÍGUEZ. 13 urte.



*Neri berdín zait. Nik ere behin baino gehiagoetan egin dut barau, gaisorik egin naizenean gehien bat eta jende askok egiten du erlijioagatik, manifestazioagatik...*

ITZIAR ARIZMENDI. 11 urte




**Jap Zwdkwt t g**  
13 wt vg

## Galde debalde

1. Zer egingo zenuke Superman ikusiz gero?
2. Ba al dakizu zerbait kozinatzen?
3. Zein piropo esango zenioke neska/mutil bati?
4. Aszensore batean entzerratua geratuko bazina?
5. Oheratzean amak ipuinik kontatzen al dizu?
6. Zerk lotsa arazten zaitu?
7. Nola esnatzen zara goizean?
8. Kotileo bat?

1. Berarekin hitzegingo nuke piskat ezagutzeko eta edonora hegaz eramateko eskatuko nioke.
2. Arraultzak, tortilak eta bokadiloak.
3. Ez naiz piropo zalea baina igual "estás más buena que un tren" edo antzeko zeozer.
4. Alarma joko nuke eta zai egongo nintzake norbait etorri arte.
5. Umetan bai, baina oin gurasoei muxu bat eman eta kitto.
6. Irakasleak denen aurrean galdera bat egin eta hanka sartzen dudanean.
7. Amak esnatzen nau eta egiten dudan lehen gauza zapatilak jaztea da.
8. Claudia Schiffer eta maguan arteko rollua montaje bat izan zala, Claudia Ameriketara famosia itxeko eta magua European.




**It wpg Mct vpg**  
7 wt vg

1. Sustau egingo nitzan, ze behin neska bat leihotik behera zintzilikatu zaban.
2. Pastela, bizkotxo.
3. Jolastuko dugu mutil guapoa?
4. Alarma joko naban baina bildurto egingo nitzan.
5. Lehen bai; Txanogorritxu eta holakukak.
6. Zer da lotsa?
7. Amak besotan hartzen nau eta komunera eramaten nau, txisa egitera.
8. Irune jo dut eta negarrez hasi da.

## Zer da...*gaua*.....?

**VICENTE SOTO 9 wt vg**



"Niretzat gaua lo egiteko eta ametsak edukitzeko ordu aproposa da."

**ADDITXU ZIALZETA 8 wt vg**



"Lo egiteko garaia da gaua eta begiak itxi eta indarra hartzen da."

**ANDED GERENABARRENA 8 wt vg**



"Gaua egunaren kontrakoa da, izarrak eta ilargia azaltzen dira."

**SAIOA ALKORTA 11 wt vg**



"Gaua oso erromantikoa da. Niri ez didazue esango gaizki egoten dela zure mutilakin belarretan etzanda izarrak ikusten! Ni ez naiz inoiz egon, baina gustatuko litzaidake."

**IVONNE GUTIERREZ 12 wt vg**



"Gaua ez da esaten duten iluntasuna baizik eta lurreko fenomenoak ez ikusteko. Saguzaharrak gauean presak hartzen dituzte eta martzianoak gure bila etor daitezke."

**INIGO CANALES 9 wt vg**



"Lotarako ordua eta amets politik bizitzeko mementua."

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Nor da elgoibartar hau?



## 2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



**KRISTINA  
ETXEBERRIA**  
13 urte

Astebukaera bat pasatzera jungo ginan mendira, kanpiñian. Afaltzeko orno txiki bat atera eta baba batzuk preparatuko nitxun eta gero karta jokuan ibiliko ginan, berbetan eta ilundutakuan lotara, zaku barruan.

**AITOR NOVA**  
9 urte


"Paellia afaltzera eramango nuke eta biolinista bat egongo zan, erromantikoa. Urrezko koilar bat erregalatuko nioke, bihotz formakoa. Afaldu eta gero diskotekara, bakalao dantzatzera eta gero etxera eramango nuke, agurtzerakuan musu bat emanez".



## 3. Asmakizunak:

- Zer ote da, zer?  
Uda haseran dago,  
negu bukaeran ere bai.  
Zer da?.....
- Eratzun berezia  
ez da urrezkoa  
baizik tintazkoa.  
Hutsa balio du ezkerrean,  
milioiak eskuinean.  
Zer da?.....
- Eva ere Paradisuan  
eraman zuen tentaziora,  
urtean behin bakarrik  
aldatzen du alkandora,  
ez nuke nahi nik  
sartu neure altzora.  
Zer da?.....

## 4. Itze hauetatik, zeintzuk dira luzeenak?



Erantzunak: 1-Julian Azkue. 2-Zer egingo zenuke zita batean?. 3-"U" hizkia, 0 zenbakia eta sugoa. 4-11.a eta 19.a.



## Ramon Aranburu

### Aranburu bitxidendakoa



- **Nongoa zara?**
- ▶ Goierriko Alzaga herrikoa.
- **Puntuala al zara?**
- ▶ Erantzunkizuna daukadanean, bai.
- **Erlojuaren kontra bizi zara?**
- ▶ Piska bat bai, erantzunkizun handiko zereginak egiteko daudenean, batez ere.
- **Zein da bizitzako bitxirik preziatuena?**
- ▶ Osasuna.
- **Ezkontzako eraztuna jazten duzu?**
- ▶ Ez.
- **Emazteari bitxi asko oparitzen dizkiozu?**
- ▶ Ez, berak nahi dituenak hartzen ditu.
- **Urrea ala zilarra?**
- ▶ Urrea, preziatuena da.
- **Emakumeak bitxi askorekin gustatzen zaizkizu?**
- ▶ Bai.
- **Trikitolariak ala pasodobleak?**
- ▶ Trikitixak.
- **Bazkalostean lokumskarrik?**
- ▶ Denbora daukadanean bai.
- **Kalitatea ala kantitatea?**
- ▶ Kalitatea.
- **Zerk beldurtzen zaitu?**
- ▶ Langabeziak eta beronek ekar ditzakeen ondorioak.
- **Mutilak belarritakoarekin?**
- ▶ Bai, zergatik ez?
- **Zein urtearo duzu gogokoen?**
- ▶ Udaberria.
- **Zein da Elgoibarko txokorik politena?**
- ▶ Bitxidendatik Andikanorainoko pasiarra.
- **Zergatik daukazue txirrina dendaren sarreran?**
- ▶ Lapurrik sar ez dadin, ziurtasun neurri bezala.

MAITE IRIONDO

## NOLA GAIZKI HITZEGIN EUSKARAZ

Adarra jo nahi dizuet zuei  
*ilea hartzearen ordez.*  
Diruaren *presioak* estutu  
inor egiten ez duenez.  
Atzo Mikeli ikusi *nion*  
bere *zorionak* zirenez.  
Munduko beste ibaiak, ondo  
*beste munduko ibaia, ez.*  
*Diputapenak* kartelak jarri:  
*trenen azpigona*, zioenez,  
di-puta-pena idatzi duzu  
zuzendu ezazu, mesedez!

Zer *denbora* egingo du bihar?  
eguneroko galdera,  
denbora aurrera doa beti eta  
eguraldia txarrera.  
*Hiri-erdia* eta hiri-gunea  
ez dira ez gauza bera.  
*Autobusean* goaz Bilbora  
bihar *merkeagoetara*  
*hizkuntza saltsan* bazkaldu eta  
loterian *jolastera*.  
Hizkuntzarekin *jolasteko* gu  
nagusitxoak ez al gera?



ABEL IRIZAR

**GARAY**  
HARATEGIA  
San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

**ORAIKO**  
San Frantzisko 23  
E LGOIBAR

**OIERKI** IGONGAILUAK  
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan  
konponduko dizugu igongailua  
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

## Iaz 4.296 ibilgailu zeuden Elgoibarren

Udaltzaingoak burutu duen memoriaren arabera, 1994. urtean trafikoari dagokionean izan ziren hainbat datu jakin izan ditugu. Besteak beste, ibilgailuen erroldan iaz 4.296 zeuden izena emanda. Horien artetik 3.759 turismoak ziren, 416 kamioiak eta 121 motorrak. 1993ko datuekin konparatuz gero, ibilgailuen kopurua jeitsi egin dela ikus dezakegu, urte hartan 4.594 baitzeuden guztira.



**G**uztiak ezagutzen dituzte ordu jakin batzuetan Elgoibarko zenbait gunetan sortzen diren kotxe ilarak. Hori ahal den neurrian ekiditeko, Udaltzaingoak trafikoa zuzentzen du. Honela, goizeko 7,30etatik 8,00etara bitartean Txankakua zubian eta Urasandiko bidegurutzean izaten dira; 8,30ak eta 9,00ak bitartean Ermuaranbiden Ikastola parean; 12,50etatik 13,15era Goiko Errotako zubian, Txankakua zubian eta Maalako zubian, 14,15etik 14,30etara Goiko Errota zubian eta Ikastola parean; arratsaldeko 16,30etan Ikastolan eta 17,45etik 18,15era Goikoerrotan,

■ ■ Zamaketa tokietan aparkatzeagatik 481 isun jarri ziren iaz.

Txankakuan eta Maalako zubian.

Horrez gain, Udaltzaingoak 2.768 multa jarri zituen 1994ean. Horietatik gehienak debekaturiko tokietan aparkatzeagatik, 635, hain zuzen ere. Baita ere zamaketa lanen tokietan aparkatzeagatik edota zirkulazioa oztopatzeagatik, zein denbora gehiegiz komeni ez den tokietan aparkatuak egoteagatik. Bestalde, gruak 44 ibilgailu eraman zituen, horietatik 17 hileroko feria egunean toki desegokian aparkatuta egoteagatik.


### INFRAKZIOAK

- Aparkamentu debekatua ..... **635**
- Denbora gehiegi aparkatua izateagatik ..... **469**
- Zamaketa tokietan aparkatzeagatik ..... **481**
- Ezinduen edo Udalaren tokietan aparkatzeagatik ..... **286**
- Oinezkoen gunean aparkatzeagatik ..... **438**
- Hobietan aparkatzeagatik ..... **54**
- Zirkulazioa oztopatzeagatik .... **229**
- Debekaturiko norabidean gidatzeagatik ..... **11**
- Beste batzuk ..... **109**



DEBA KALEA 12  
TEL.: 74 42 23  
20870 ELGOIBAR

**ERREFORMAK**  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
**OBRAK OROKORREAN**



**Mandiola S.L. Egurrak**  
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

**MIREN**  
arraindegia



Santa Ana  
74 34 49  
**ELGOIBAR**

## San Bartolome elizaren eraikuntza

- Joan zen asteen amaitutako tokian helduko diogu aste honetan San Bartolome elizako eraikuntzaren bigarren faseari.
- Gogora dezagun Lucas Longa eta Martinez arkitektoek egin zituzten proiektuak konparatzen ari ginela.
- Gangei dagokionean, Martinezek ganga-tenkatuak diseinatu zituen bitartean Longak fajoi simpleekin indarturiko ilargixkadun kanoi-gangak burutu zituen. Gurutzadura, kupula erdi esferiko batez ixten da, esfera erdia eraztun eran zuzenki ezarria. Hemen, balustrada eta erlaizaren azpian friso bat doa eta bertan honako idatzia irakur daiteke: "Haec est domus domini firmiter aedificata bene fundata est supra firmam petram quam Philipus III Hispaniarum rex praecipit aedificare die 23 januarii anno dei 1617". Hona hemen idatziak esan nahi duena: "Jaunaren etxea gogor eraikia zein harkaitzaren gainean ongi eratu, Felipe III.a Hispanietako erregeak agindu zuen eraikitzea Jaunaren 1617. urtean eta urtarrilaren 23. egunean".
- Aipatzen den dataz zera esan behar da, data horretan eman zuela Felipe III.ak eliza eraiki ahal izateko baimena erret-zedula baten bidez. Erregeak eman zuen baimena OIaso erret patronatokoak baitzen.
- Proiektua kupula danborrik, linternarik zein dekoraziorik gabekoa da. Halere, XX. mendearen 50ko hamarkadan esfera erdiaren ataletan zortzi baogune ireki ziren, beiratez estaliz horietan auzuneetako ermiten zaindarien irudiak agertzen zirelarik. Baogune hauek 1978. urtean itxi ziren berriz, hezetasun guneak baitziren. Gaur egun, berriz, egiten ari diren obretan kupulako erdiguneko

- zirkulutxoan argizulo bat ireki dute nahiz eta kanpoko aldera ez den nabarmenduko teilatuaeren gainetik eta, beraz, ez da sartuko argitasun naturalik.
- Longaren proiektuan argiari presentzia handiagoa ematen zaio eliz barruan. Espazioari dagokionean ere goi koroa gehitu egin zuen oinean espazio handiagoa eratuz. Behe koroan eremu zabalagoa eta itxura indibidualizatuagoa eman zion baina honen ondorioz nabarean luzera motzagoa eta tartetan banatua geratu zen eta gurutzaduran zabaltasun handiagoa geratu zen kupularen babesean.
- Longak dorrea, portada eta arkupeak ere diseinatu zituen nahiz eta eraikitzean aldaketa batzuk izan.
- Bukatzeko hona hemen Longaren aportazioari buruz Astiazarain



ikertzaileak dioena: "Longak, San Bartolome arkitekturaren erabili zituen ornamentazio indarra eta artikulazio dinamikoa oinplanoan zein altxaeran, garai hartan ulertzen ziren eskema barrokoetan sartzen dira bete-betean".

PELLO ARRIETA

## Dimas Gil Aulestiarte (1910-1989)



- San Frantzisko kalean jaio zen 1910. urteko martxoaren 25ean.
- Kultur mailan ekintza ugari antolatzen zituen gizon honek. Hala nola, Gabonetako Errege Kabaltaren bul-tzatzaile izan zen.
- Horrez gain, antzerkiak antolatzen zituen, bai eta antzezleak makilatu eta teloiak apaindu ere.
- Eskulanak izugarri gustatzen zitzaizkion. Ogi mamizko eta bustinezko irudiak egiten zituen. Edonon zegoela, bost minututan, figuratxo bat egiten zuen erraztasun handiz, erlijiosoak batez ere. Gaisotu zenean esku bakarrarekin goilaratxoak egiteko gai zen.
- Aeromodelismo zaletua zen. Eskuz muntatzen zituen hegazkinak, eta gero hegan jartzen zituen. Aeromodelismo erakustaldiak antolatu zituen.
- Hegazkinak oso gogoko zituen; izan ere, Hondarribiko Aeroclub-eko bazkide zen.
- Pelikulak ere egin zituen. 1950 inguruan "korto" bat aurkeztu zuen Victoria Eugenia eta sari bat jaso zuen.
- 1989ko urtarrilaren 11n hil zen.

**Baserriko haragietar berezia**

**Harategi Urdaitegia**

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

**UDA**

**ELGOIBAR**

**Maria Urizar**

**ileapaindegi mixtoa**

Errosario 9-1 ezk.

☎ 74 44 89 ELGOIBAR

## MOTZAK

### Saskibaloia Taldeak lehenengo Kopa eskuratu du

Elgoibarko Saskibaloia Taldeak osatutako ekipo bat, *Grefusitos* izenekoak, Eibarko Saskibaloia Txapelketan Kopako txapelketa izan da. Honako hau Elgoibarko Saskibaloia Taldeak lortzen duen lehen garaipena da. Txapelketan Elgoibarko Saskibaloia Taldeak sortutako bi talde hartu du parte, horietatik aipatutako *Grefusitos* izenekoak lortu duela garaipena.

### Olaizaga Igeriketa taldea Oñatin izango da

Olaizaga Igeriketa Taldeko Judith Ajubita, Amaia Revert eta Javier Egeak 200 m libreetan eta 50 m tximeleta frogetan parte hartuko dute larunbat honetan, hilak 8, Oñatin izango den txapelketan. Orain arte Eibarren, Oñatin eta Bergaran aritu dira Igeriketa Taldeko neska-mutilak, tartean, Ines Segura, Julia Fernandez, Aingeru Osoro, Julen Arrillaga, Iñigo Otero, Julen San Juan eta aipatutako hiruak.

### Gorka Garate Euskadiko hirugarren judoka

Ibai Gimnasioko Gorka Garate judokak brontzezko domina eskuratu zuen 17 urtetik beherako Euskadiko Judo Txapelketan. Gorkaren areririk gogorrena Espainiako txapelketa izan zen. Lehen bi postuetan geratu izan balitz, Tenerifen izango den Espainiako Txapelketara joateko aukera izango zukeen.



Gorka Sanchez:

### "Krosa pista baino gehixao gustatzen jata"

#### ■ Noiz hasi zinen atletismoan?

- Oin dala bi urte edo. Lelengo hasi nintzan Rinokin eta orain Ikastolako ordezkarri bezela korritzen dot.

#### ■ Nondik dator kizua zaletasuna?

- Beti esaten ziaten gimnasia eta kiroltan ondo moldatzen nintzala eta apuntatzeko esan ziaten.

■ **Nork animatu zintuen?** - Irakasleek batez ere. Erresistentzia naukala ikusi zuten.

■ **Orain arte lortu duzuna ez da makala.** - Bueno, iaz Gipuzkoako selekzioan sartu nintzan Euskadiko Txapelketa korritzeko. Aurten Gipuzkoako selekzioan sartu naiz eta Euskadiko 4. geratu naiz. Pistan, 1000 metroan Gipuzkoako lelena naiz eta errekorra daukat, 2'59".

■ **Zein distantzian zabilta ondoen?** - Nik nahixao ditzut karerra luziak. Krosian hiru edo lau bat kilometro eta pista 800 edo 1000 metro, erdi-fondoa edo fondoa deitzen zaiona eitzen dot.

#### ■ Aukeran, krosa ala pista?

- Bixak, baina igual krosa gehixao. Zailtasun gehixao ditzu, aldapak, potzuak...

■ **Mugerza krosean korritzeko asmorik?** - Asmua bai baina oindio urtiak pasau biharko dia. Lehenengo preparau ein bihar naiz.

■ **BARRE**neko krosean ere zeu garaile. - Bai, nahiko



erreza izan zan; ez zauan aldapa haundirik. Gustau jatan karrera, politxa izan zan.

■ **Datozen asteotan zein lasterketa korrituko dituzu?** - Oindio krosko lasterketa batzuk falta dia eta gero pistia hasiko da.

■ **Krosean beste lortuko duzu pistan?** - Uste dot baietz, saiatuko naiz behintzat.

#### ■ Arrakasta lortzeko sekretua?

- Asko entrenau eta erresistentzia lortu. Astian lau edo bost ordu entrenatzen dot eta karrera dauanian gutxio, ez da komeni asko eixia karrera aurretik.


■ **Entrenatzailearekin zer moduz?** - Rinokin oso ondo baina txixak ere entrenau bihar ditzunez ezin dogu danak erritmo berdina jarraitxu. Oin Revueltakin hasi naiz eta hobeto nabil.

■ **Miresten duzun korrikalari-rik?** - Martin Fiz, Mammo Wolde... Bateonbat izatekotan Carlos Adan

gustauko jatan izatia, danetikan dauka: abiadura, erresistentzia...

■ **Atletismoa ez balitz...** - Beste kirol-lik? Saskibaloia, baina ez jata gehixegi gustatzen. Errekreuan eta lagunekin jokatzen dot.

- Adina: 13
- Nori irabaziko zenioke gustura? Zaldibarko bati
- Zaletasunak? Musika entzun
- Janari gogokoena? Espinakak



Martxoaren 30ean hil zen **TOMAS ZELAIA ETXANIZ**  
jaunaren emazte, seme-alaba eta sendiak, bihotzez  
**ESKERTZEN** dizkizuite jasotako doluminak, hala nola hileta  
elizkizunetara agertu izana.



**F**utbito Txapelketaren lehen fasea, klasifikazio fasea alegia, bukatu da eta dagoeneko Liga irabazteko borrokan arituko diren taldeen izenak ezagutzen ditugu. Halere, hamar talde sailkatuen artean azken txapelketa zein izango den jakin ahal izateko denbora asko falta da, aurten txapelketa inoiz baino beranduago bukatuko baita. Liga eta Kopako finalak uztailaren 2an jokatuko dira Urasandiko kanpoetan. Ordurarte egun asko eta futbito ordu asko falta direnez, gozatu futbolaz!

Bestetik, aipatzekoa da partiduen ordutegia, azken fase honetarako aldatu egingo dela. Orain arte lehenengo partidua 10etan izaten baziren ere, hemendik aurrera posible da zenbait neurketa 9etan hasita eta baita eguerdiko letan jokatutako beharra egotea ere. Beraz, adi egon talde guztiak ordutegi berriarekin inongo arazorik egon ez dadin.

Lerro hauen azpian lehen fasean sartutako golen berri duzue eta baita azken txanpa honetan Ligarako klasifikatuen zerrenda eta Kopako taldeak.



## GOLAK

### GOLEGILERIK ONENA

D. Conde (Pedruscos) 27 gol  
J. Romero (G. Garcia) 23 gol  
Mancebo (Mimox) 19 gol  
Gonzalez (Karkis) 15 gol  
C. Conde (Pedruscos) 14 gol

### GOL GUTXIEN JASO DUEN ATEZAINA

Iglesias (G. Garcia) 12 gol  
Agirrezabal (D.T. Veterans) 12 gol  
Díaz (King - Kong) 15 gol  
Muñoz (Karkis) 15 gol  
Revert (Pedruscos) 16 gol

### Ligarako klasifikatutako taldeak

GARAGES GARCIA  
KING-KONG  
D.T. VETERANS  
KOSAKOS  
SAN ROKETARRA  
PEDRUSCOS  
KARKIS  
MIMOX  
UNIV. DE CHILE  
HUDE VERBOTEN

### KOPAKO TALDEAK

|  |   |
|--|---|
| <b>1</b> La Maxia<br>Oraiko cafe<br>Berrogei Duro<br>Resto | <b>2</b> Rua<br>Fotero<br>Rebel Urbi<br>D.          |
| <b>3</b> Tropiko<br>Haritza<br>Ametza<br>Gruas             | <b>4</b> Aldavas<br>Sporting<br>Replastisa<br>Lucky |

### DATORREN IHARDUNALDIA

**9,00:** La Maxia - Oraiko B. Duro - R. Mundo  
**10,00:** Rua - D. Kalimotxo R. Urbi - Fotero  
**11,00:** U. Chile - Pedruscos Mimox - S. Roketarra  
**12,00:** Karkis - Kosakos H. Verboten - Veterans  
**13,00:** G. Garcia - King-Kong

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan Larunbata 8

**10,00:** Urki - Aloñamendi (Jubenilak)  
**12,00:** Urki - Gazteak (2. errejionala)  
**16,30:** Elgoibar - Lehengokoak (Kadeteak)

### Igandea 9

**12,00:** Elgoibar - Lizardi (Neskak)

### Asteazkena 12

**20,00:** Haundi - Baskonia

### Ostirala 14

**17,00:** Athletic - Olinpique Lyonnais

### ESKUBALOIA Kiroldegian Larunbata 8

**17,00:** Elgoibar - Tolosa (Jubenilak)

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Elgoibar 4 - Beti Ona 0 (Infantilak)  
Dunboa 2 - Elgoibar 4 (Kadeteak)  
Anaitasuna 3 - Elgoibar 2 (Neskak)  
Elgoibar 2 - Añorga 3 (Jubenilak)  
Elgoibar 9 - Urki 1 (2. errejionala)  
Haundi 2 - Santurtzi 0

### ESKUBALOIA

Elgoibar 9 - Bermeo 9 (Kadete neskek)  
Elgoibar 18 - Zarautz 20 (Kadete mutilak)  
Bergara 16 - Elgoibar 15 (Jubenilak)

## Nazioarteko Jubenilen Txapelketako partidu bat jokatuko da hilaren 14ean Mintxetan

Aste Santuko oporretan, hilaren 14ean hain zuzen ere, Real Sociedad elkarrekin urtero antolatzen duen Nazioarteko Gazteen Txapelketaren XI. edizioari dagokion partidu bat jokatuko da Mintxetako Udal Futbol Zelaian. Athletic eta Frantziako Olympique Lyonnais taldeen arteko partidu interesgarri bat ikusteko aukera izango dute zaletu elgoibartar guztiak arratsaldeko 5etatik aurrera.

**A**thletic eta Olympique talde gazteak elkarren arteko lehia arituko dira Nazioarteko Gazteen Txapelketaren baitan. Bi taldeak dira maila handikoak. Athletic-ek aste honetan bertan saikapeneko lehen postua galdu arren, txapelketa bikaina burutu du. Plantila txurigorrian internazionalak diren Guerrero eta Alkortaren anaiak dira azpimarragarrienak. Olympique Lyonnais taldea Frantziako gazteen kategoriako talderik onena da zalantzarik gabe. Saikapenean Paris Saint Germain, Auxerre edota Nantes bezalako talde ezagunen aurretik doaz. Honez gain, Kopako finalera heldu dira, jokalaria izandako Tigana ezagunaren eskutik.



TXENTXO

■ ■ Lehen errejionalera igotzeaz gain, Antzuolaren aurkako partidua irabaziz gero, saikapenean txapeldun izango dira.

### 2. errejionala mailaz igo da

Astebukaera honetan Antzuolan jokatuko duten azken partiduen atarian, C. D. Elgoibarko bigarren taldeak lehen errejional mailara igotzea ziurtatuta dauka. Talde elgoibartarra saikapeneko buru da, Eibarko taldea dauka atzetik, puntu batera. Antzuolan irabaztea beraz, ez da erabakiorra izango igotzeko, baina garaipenari esker lor ditzaketen hiru puntuak etxera ekarriz gero, saikapeneko txapeldun geratuko lirakeke gainera. Zorionak, beraz, alde

aurretik.

Bestetik, 3. mailako Haundi taldeak hil honen 12an jokatuko du hurrengo partidua etxean. Baskoniaren aurka jokatuko duten partidua azken aldi lortu dituzten emaitza onen ildotik bideratzeko asmotan zela iratuko dira Haundiko jokalariek. Arratsaldeko 8etan Mintxetako zelaian hasiko den partidurako sarrerak ikastetxe ezberdinetan banatuko ditu C. D. Elgoibar Elkarrekin.



Athletic eta Frantziako Olympique Lyonnais taldeen arteko lehia ikusi ahal izango dugu hil honen 14ean Mintxetan



*Eskulanean  
saikatzen gara  
Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak*

Barrene 34-35 Tel: 74 03 45



JOSE ANGEL ZABALA  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Txerrikiak  
Merkatu Plaza 33-34

## “En la trastienda” dantza saioa Herriko Antzokian

Bilboko Con buen pie konpainiak “En la trastienda” izeneko dantza ikuskizuna antzeztuko du Herriko Antzokian, gaur, hilak 7. 1990ean sortutako konpainiaren azken lana da “En la trastienda”, iazko maiatzean estreinekoz Barakaldoko Antzokian antzeztu zutena. Pret a porter denda bateko manikiek gauzez egiten dutenari buruzko kontakizuna da.



■ ■ “En la trastienda”n manikiek dantza egiten dute gauzez.

**H**orixe da istorioaren abiapuntua behintzat. Gauzen atzeko aldean gertatzen denari begirada bat botatzea proposatzen dute. Publikoa aretoan sartzen den bitartean hasten da ikuskizuna. Azken modako saltoki batean, gaua heltzen denean manikiek hartzen dute protagonismoa, eta beraiekin batera dantzak.

Lengoaia propioa erabiltzen dute, trinkoa eta arina aldi berean baina beti ere, lengoiaia teatralaren bidetik, publikoarengana iristeko hain inportantea dena. Dantza kontemporaneoan oinarritutako lan honen zuzendaritza dramatikoaren garrantzia berebizikoa da; publikoak

ulertzeko moduko obra da. Aspektu originalak eta elementu ezberdinen arteko kontrastea armoniaz elkartuta daude.

Ikuskizun honetan parte hartzen duten bost dantzariak, denak emakumeak, dantzaren munduan esperientziadunak dira, dantzariak ezezik koreografia lanetan ere aritu izan dira, hala nola Karraka, Markeliñe, Tarima, Traspasos eta beste zenbait konpainiatan, ETBko hainbat saioetan, eta obra propioetan ere bai. Taldearen ikuskizun propioak: “Molien-do Cafe”, “Hazel y Nola”, “Txubas-kos”, “Yubihelen” eta azkenik “En la trastienda”.

### **FITXA**

**Izena:** Con buen pie. **Ikuskizuna:** En la trastienda. **Koreografia:** Begoña Krego, Cristina Quijeira. **Eszenografia:** Julian Viadas. **Jan-tziak:** Begoña Rodriguez. **Dantzariak:** Matxalen Bilbao, Begoña Krego, Cristina Quijeira, Beatriz Villar, Mayda Zabala. **Lekua:** Herriko Antzokia. **Eguna:** Hilak 7. **Ordua:** 22,15. **Sarrera:** 350 pta nagusiak, 200 haurrak.

**ASEGURATU  
ZURE  
TIROA**

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

*okindegia eta gozotegia*

**HOTERO**

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35  
**ELGOIBAR**

## Euskadi mailako *hiru* *literatur sari* Elgoibarrera



Euskadi mailan antolatzen den Euskal Eskola Publikoa Denona 4. Ipuin lehiaketan sari bana irabazi dute Elgoibarko institutuko hiru neskek, eta ez nolanhiko sariak gainera. Mirari Osorok lehen saria eskuratu du euskaraz, Celia Pelazek lehenengoa baita ere baina gazteleraz eta Sonia Etxanizek bigarren saria jaso du gazteleraz. Joan den igandean izan zen sari banaketa Euskal Eskola Publikoaren alde Bilbon izan zen festan. Iazko abenduan aurkeztu zituzten idazlanak, Begoña Azpiatzuk, lengua-jeko irakasleak, eta Tere Alonsok animaturik. Ez zuten irabazterik espero baina hiru sari jaso dituzte, lehenengo sariak gainera.

*"Arantza bat bihotzean"* izenburua darama Mirari osororen ipuinak. "mutil batek bere bikotearekin bizi izandako uneak gogoratzen ditu. Bere bikotea hil da eta bera, mutila, hura bere ondoan izan gabe ezin dela bizi konturatzen da. Azkenean bere buruaz beste egiten du". Mirarik azaldu digunez, "ipuin honen bidez denok pertsona baten ondoan bizi izatera gaudela predestinatuak azaldu nahi izan dut eta, era berean, gizarte honetan arazo askoren atzean maitasuna edo maitasun eza dagoela".

*"Para la posteridad"* izenburupean, hona hemen Celiaren ipuinak kontatzen duena: "Erdi aroko errege feudal baten alabak ikasi nahi zuen baina garai hartan neskek ezin zuten ikasi. Halere bere kontura ikasten du eta horregatik "deabruaren alaba" deit-

zen diote, inkisizioa iristen da eta bere familia hiltzen dute. Neskak ihes egiten du eta liburuz betea dagoen gazteluko dorre batean entzerratzen da. Han, irakurtzen eta ikasten ematen du bere bizitza baina gaisotu egiten da. Honela, eskutitz bat idazten du gizartea prestatua dagoenean jende guztiak izan dezan aukera ikasteko eta dorre hartan izkututzen den jakinduria guztia jasotzeko. Idazlana neskak utzitako eskutitza da". Celiaren kasuan, "gizartean gaizki egon diren gauzak salatu nahi izan ditut eta emakumearen papera gizartean aldarrikatu, emakume edozer egiteko gai baita".

*"El deseo de Pit"* izenburua du Soniaren ipuinak. "Mutil batek etxetik aldegitzen du eta neska batekin topo egiten. Mutilari arriskua gustatzen zaio eta banketxe bat atrakatzen



**MIRARI OSORO**

**1. saria euskaraz**


**"Esklabuen garaiari, kultur galduari, azteka, inka eta antzekoei buruzko istorioak gustatzen zaizkit"**



**CELIA PELAZ**

**1. saria gazteleraz**

**"Becquer da niretzat onena, bere bizitza, bere lana..."**



**SONIA ETXANIZ**

**2. saria gazteleraz**

**"Hitchcock, Agatha Christie, Anaïs Nin... denetik gustatzen zait"**

dute. Azkenean mutilari beste ezer egiteko geratzen ez zaiola iruditzen zaio eta suizidatu egiten dira". Bonnie and Clyderen istorioaren antzekoa egin duela esan daiteke.

Irabazten duten lehen saria bada ere, hiruek izan dute betidanik idazteko zaletasuna. "Hemendik aurrera baliteke idatziak kajoian geratu beharrean lehiaketa gehiagotara bidaltzea". Hiruek eskerrak eman nahi dute jasotako erantzunagatik, bai irakasleen aldetik bai eta ikasleen aldetik ere, "denak oso ondo portatu dira eta gu beste poztu".



## Lana

Mutil gazte amerikarra INGELESEKO KLASEAK emateko prest dago. Mendaron eta baita interesatuen etxeetan ere.  
☎ 75 62 13 Alex

ENPRESARIALESETAN DIPLOMATUA ofizina lanak edo beste edozein lan egiteko prest dago.  
☎ 74 39 89 Mari Karmen

Neska euskalduna ETXEKO LANAK edota UMEAK ZAINTZEKO prest dago. Goizez.  
☎ 74 09 02 Kristina

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.  
☎ 74 43 16 Mari Karmen  
Goizez

## Etxebizitzak

PISU BAT erosiko nuke.  
☎ 74 08 20  
Gauzez deitu

APARTAMENDU BAT daukat Jakan, udaran alokatzeko.  
☎ 74 15 22

PISU BAT alokatzen dut. Altzari eta guzti.  
☎ 74 32 45  
Lan orduetan

3 hilabetetarako bi bainu gela dituen ETXE BAT alokatuko nuke.  
☎ 74 41 32 Edurne

APARTAMENDU BAT daukat Benidormen alokatzeko. Levanteko hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta aparkalekua.  
☎ 74 16 57

ETXEBIZITZA BAT saltzen da. Santa Klara 24, 5-B.  
☎ 74 32 98

## Agurrak

## Bestelakoak

URREZKO PULTSERA BAT galdu da Urasandi eta King-Kongeko autobus geltokiaren artean.  
☎ 74 34 99 Eli

PERTSONA BAT behar dugu pisu bat osatzeko Donostian (Amaran).  
☎ 61 93 14  
Deitu gauzez

Hilak 4ean BETAURREKO BATZUK galdu nituen Elgoibar eta Isua bitartean. Hurbilerako dira. Norbaitek batu baditu, mesedez deitu.  
☎ 74 19 37

Otsailaren 19an ARGAZKI KAMARA BAT galdu nuen Sigmako zubia eta San Frantzisko iturriaren bitartean. Chinon markakoa da.  
☎ 74 27 89 Mari Karmen

## Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian. Institutu parean. Marraduna.  
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifikazioan. 15m<sup>2</sup> eta bi planta.  
☎ 74 25 01 / 10 82 43

GARAJE itxi bat saltzen dut santa Ana 46 zenbakian  
☎ 74 13 67

## Salerosketak

TAPIFLEX KOLTZOIA ETA BURUKOA saltzen ditut, 1,50 x 1,90 neurrikoak eta oso egoera onean. Dena 20.000 pta.  
☎ 74 03 69 Kristina

LORITO BAT saltzen dut kaiola haundi batekin batera.  
☎ 74 26 32 Txomin

LANBRETTE 150 (Bi-X) eta MOBILETTE BAT saltzen ditut.  
☎ 74 26 32 Txomin

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.  
☎ 74 00 67 Martin  
Jatorduetan

Super nintendo KONTSOLA BAT SALTZEN DUT. Mando batekin, 8 jokurekin eta adaptadorea Amerikar eta japoniar jokuentzat. Dena 23.000 pta  
☎ 74 05 80/74 18 34 Asier

KANPING-DENDA BAT saltzen dut. Oso handia da eta egoera oso onean dago.  
☎ 74 15 22

MATRIMONIO LOGELA oso bat, 90eko bi ohe dituen LOGELA oso bat, MATRIMONIO LOGELA puente bat, SALA oso bat eta SUKALDE oso bat SALTZEN DITUT trasladoagatik.  
☎ 74 33 19  
1tik 3etara / 7,30etatik 10etara

FIAT TIPO 1.8 16 v. BAT saltzen dut. Kilometro gutxi ditu, direkzio asistitua, itxiera zentralizatua, sapa solarra eta leihoak isteko mekanismo elektrikoa. SS-AL  
☎ 10 74 79

LOKAL BAT DAUKAGU SALGAI Foruen enparantzako arkupeetan. Lehen Iturri taberna izandakoa.  
☎ 74 13 77

## MARTXOAN

### Hildakoak

- ▶ Antonia Bergaretxe Ardanza, 73 urte (Martxoak 3)
- ▶ Dionisia Aranberri Aranberri, 82 urte (Martxoak 3)
- ▶ Candido Cruz Fernandez, 62 urte (Martxoak 9)
- ▶ Victorino Ferrero Gutierrez, 55 urte (Martxoak 9)
- ▶ Gregorio Monreal Sanz (Martxoak 27)
- ▶ Tomas Zelaia Etxaniz, 63 urte (Martxoak 30)
- ▶ Vicente Santos, 70 urte, (Urtarrilak 31)

### Jaiotakoak

- ▶ Sara De castro Otero (Martxoak 6)
- ▶ Mikel Garay Landa (Martxoak 12)
- ▶ Jon Martinez Dominguez (Martxoak 16)
- ▶ Unai Ortuoste Arana (Martxoak 30)

### Ezkondutakoak

- ▶ Juan Luis Astigarra Arriaga eta Garbiñe Iriondo Aristondo (Martxoak 4)
- ▶ Humberto Leiaristi eta Immaculada Martin (Martxoak 25).
- ▶ Juan Almenara eta Birginia Gallastegi (Martxoak 25).

## 7 OSTIRALA

22,15 DANTZA

Con buen pie taldearen "La trastienda"

✓ Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Dantza Fundazioa

## 8 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

"Maité"

## 9 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Maité"

## 10 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Maité"

## 11 ASTEARTEA

20,00 TANBORRADAREN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"Sirenas"

(Ikuslearen eguna)

## 13 OSTEGUNA

22,15 ZINEA

"Ladybird, ladybird"

## 14 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Velocidad terminal"

## 15 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

"Velocidad terminal"

## 16 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Velocidad terminal"

## 17 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Velocidad terminal"

## 18 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Ladybird, ladybird"

(Ikuslearen eguna)

## ZINEA



### Maité

Zuzendaria: Carlos Zabala, Eneko Olasagasti.  
Antzezleak: Jose Ramon Soroiz, Ileana Wilson, Mikel Garmendia.  
Iraupena: 1'32"

Angulen salmentan jarduten duten bi anaia, erosle atzerritar bat topatzeko ahaleginetan dabilta. Cuba baino leku aproposagarik ezin aurkitu. Bietako baten iruzurren bidez La Habanara iritsiko dira. Biak elkarri iruzur egiten saiatuko dira eta hango biztanleek, berriz, angulak lortu nahiko dituzte puruen orde. Laster bi anaietatik gazteenak eta sentimentalenak, kubar emakumeenganako debildadea sentituko du. Hemendik aurrera erabat aldatuko da euren bizitza.

## txandak

### FARMAZIAK:

| EGUNA           | EGUNEZ      | GAUEZ       |
|-----------------|-------------|-------------|
| 8, larunbata:   | Yudego      | Escala      |
| 9, igandea:     | Yudego      | Escala      |
| 10, astelehena: | Ormazabal   | Anduaga     |
| 11, asteartea:  | Ormazabal   | Anduaga     |
| 12, asteazkena: | Ormazabal   | Anduaga     |
| 13, osteguna:   | Ettxeberria | Ettxeberria |
| 14, ostirala:   | Ettxeberria | Ettxeberria |

### FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Escala Rekalde 1, Plaentxi

Te. 75 16 38

Anduaga: Mendarozabal 1, Mendaro

Tel. 75 61 42/75 60 27

### OKINDEGIA:

9, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

13, osteguna: ZABALETA

14, ostirala: IDARRAGA/EIZAGIRRE

16, igandea: FOTERO

17, astelehena: BOUTIQUE DEL PAN

## ZINEA



### Sirenas

1930. urtea. Sidneyko eliz hierarkia erabat eskandalizatu dago Norman Lindsay artistaren emakume eder bat gurutzte batean agertzen den margoagatik. Gotzaiak Ingalaterratik datozen Anthony Campion apaizari eta honen emazteari Lindsay-rengana joan eta margoa nazioarteko erakusketa batetik erretiratzeko konbezitu dezaten eskatzen die. Tren istripu bat dela eta bidaia atzeratu eta Lindsay-ren etxean egun batzuk igarotzera behartuta egongo dira. Egun horietan apaizaren emazteak bere senarrarengandik eta honek suposatzen duen guztiarengandik aldenduko duen esperientziak bizi izango ditu.

Elgoibarko entitateetan euskararen erabilera suspertzeko

## HITZARMENA



Adi!

Laster batean **HITZARMENA**ri buruzko azalpenak emango dizkizuen pertsonaren bat jarriko da harremanetan zuekin. Arretaz entzun eta ez dugu dudarik zuenean ere baietz esango diozuela **HITZARMENA**ri. Aurrez mila esker denoi!

*Kultur eta kirol elkarteak eta  
bain eta gazteekin  
lotura duten entitateak*

- Ongarri (Zinea)
- Hodei A.T.
- Zuhaitz A.T.
- Ekekei A.T.
- Taupada A.T.
- Kokoe K.T.
- Egur
- Lurki
- Leizarpe
- Gare
- Elgoibarko Izarra K.E.
- Andraize E.T.
- Emakumeen Gazte Taldea
- Zazpiki Irratia
- Gazte Asanblada
- Kalera Emakume Taldea
- Karakate Elkartea
- Pilota Eskola Lagunak
- Ego-Toki
- Elgoibarko Kirol Taldea
- Elgoibarko Lagun Taldea
- Morkaiko M.E.
- Elgoibar Futbol Aretoa
- Olaizaga K.T.
- Ibai
- Urbizi
- Ajedrez Taldea
- Mintxeta Atletismo Taldea
- Urgazi
- Saskibaloit Taldea
- Urbizi
- Musika eta Dantza Fundazioa
- Parrokiako Abesbatza
- Haritz Dantzari Taldea
- I.B. Musikeskola
- Udal Banda
- Herriko Dultzaineroak
- Trikitixa Eskola
- Txistulariak
- Itxaropena Abesbatza
- Liburutegia
- Mintxeta
- Eskolarteko kirolak
- Kultura, Euskara, Kirola eta Ongizarte Sailak
- Parrokia
  - Kristau Ikas-Bidea
  - Zuhaitz
  - Konfirmazioa
  - Konfirmazio ostekoa
  - Argia
  - Mariana eta Bicenciana Taldea
- Ikastola
- Herri Eskola
- Pilar Ikastetxea
- Batxillergo Institutua
- Lanbide Heziketarako Institutua
- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Ikasbat
- IMI
- Haurtzandegia
- Akademiak
- Auto-Eskolak
- Jarrai
- Egi
- Aitor Zabala, DV
- Constan Nuñez, Correo
- Miriam Aldazabal, EL Mundo
- Maritere Elkoro-Iribe, Deia
- Egin
- Maritxu Loiola (Arrate eta Loiola Irratiak)
- Gurutze Gorria
- Talde Antimilitaristak
- Elkarriko Tailerra
- Errotatxo

Entitateen bat falta bada deitu berehala 74 16 26 telefonora eta zuzenduko dugu okerra



PLANGINTZAREN DISEINUA  
ETA ARDURA:  
ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



PLANGINTZAREN BABESLEA:  
ELGOIBARKO UDALA

- **BEHERAPEN HANDIAK** erakusketa aldaketagatik
- **Logelak, liburutegiak, sofak...**
- **Lanparak 8.000 pta-tik gora**

## **EL ALMACEN DE ELGOIBAR**

### **ALTZARIAK**

Urasandi, 2. ☎ 74 29 41 •ELGOIBAR•

# **PAGOAGA S.A. Iturgintza**

San Antolin Kalea 13  
**ELGOIBAR**  
 ☎ 74 02 79 - 74 05 12  
 Faxa: 74 35 65

- ↳ **ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK**
- ↳ **IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN**



**GAS INSTALATZAILEA**  
 IG4 baimenarekin.  
 GAS NATURALA ETA PROPANOA

